



KONPOSTA

etxean
konpostatzeko
gida

2



KONPOSTA

Konpostajea naturan gertatzen den prozesua da, soberakin organikoak birziklatu eta ongarrihurtzen dira, naturaren zikloa itxiz.

Prozesu naturala da eta, prozesu horren bidez, materia organikoa, eraldaketa biologiko baten bitartez, konpost bihurtzen da. Konpost hau nekazaritzarako eta lorezaintzarako ongarri erabilgarria da. Eraldaketa hau mikroorganismoek (onddo, baktería, etab.) eta lurzoruko faunak (zizare, barraskilo, etab.) eragiten dute, egoera aerobioan, hau da, oxigenoarekin.

ZER DA AUTOKONPOSTA?

Autokonposta etxeko soberakin organikoak etxean bertan konpostajearen bitartez kudeatzean datza. Materia organikoa Udalak emandako konpostagailuetan konpost bihurtu eta kalitatezko ongarria lortzen dugu. Horrela, elikagaiak lurrera bueltatu eta materia organikoaren zikloa ixten dugu.

OINARRIZKO 4 ARAUAK

1. Konpostagailua zuzenean lurzorua gainean jarri
2. Materia hezea eta lehorra bolumen berdinean nahastu
3. Metatutakoa nahastu
4. Hezetasuna kontrolatu



KONPOSTAGAILUA

Konpostagailuak konpostatze-prozesua egiteko ontziak dira. Ontzi horiek espazio bertikala baliatzen dute eta konpostatu beharreko meta txukun gordetzen dute.

%100 plastiko birziklatuarekin eta birziklagarriarekin eginak daude. Beren diseinuari esker, hondakin organikoa ongarri bihurtzen duten mikroorganismoentzako aireztatze egokia bermatzen da. Gainera, airearen zirkulazio onak hezetasun eta tenperatura egokia mantentzen laguntzen du. Horrela, usainik eta eltxorik gabeko deskonposizio lasterra lortzen da, urtarorearen arabera, gutxi gorabehera, 3-6 hilabete bitartean.

Horma termikoek luze irauten dute eta, barruan, klima ezin hobea mantentzea bermatzen dute. Gainera, izpi ultramoreak egonkortzen dituzte eta, denbora luzean, ez da hormetan pitzadurarik sortzen.





MUNTAIA ETA KOKAPENA

Konposta-kaxa muntatzeko nahikoa da lau hormak pasadore edo hagaska bidez lotzea. Tapa hagasken eraztunetan lotzen da.

Lortzeko modurik erosoena, lau hormak lurlean zabaldu eta elkarri lotu ondoren jasotzea da. Behin jasota, hormak kuadro bat osatzeko moduan jartzen dira eta azken kisketa jartzen da.

Konpostagailuaren azpian sare bat jartzea gomendatzen da, intsektuak pasa daitezen, baina sagurik ez.

Sukaldeko hondakinak botatzen hasi aurretik, gai leho-
rez osatutako 10-15 zm-ko geruza egitea aholkatzen da.

Konpostagailua lorategian eta sukaldetik gertu jartzea da egokiena.

Kaxa landare baten alboan muntatuz gero, inoiz baino lore eta fruitu gehiagorekin eskertuko digu.

6

»Organikoen hondarrak ur edukiaren arabera sailkatu daitezke. Material hezeak elikagaiak ematen dizkie konpostatze prozesuaren ardura duten organismoei, eta material lehorrak gehiegizko ura xurgatu eta oxigenoaren zirkulazioa hobetzen laguntzen du.



MATERIAL HEZEA

Sukaldetik eta lorategitik nahikoa materia heze jasoko dugu. Udan, materia heze gehiago izaten da lorategian landaredi gehiago izaten delako eta fruitu eta barazki gehiago izaten den garaia delako. Material hezeak: fruta eta barazki hondarrak, haragi eta arrain hondarrak, sukaldatutako janari hondarrak, lore eta erramuak, belarra eta baratzeko hondarrak.

MATERIAL LEHORRA

Landare nahiz animalia jatorrikoak izan daitezke. Normalean, neguan behar adina izango dugu baina, udan, posible da falta izatea. Material lehorrak: arrautza oskolak, fruitu lehorrak eta mariskoa, hezurak, kortxoak, paperezko musuzapiak, inausketa hondarrak, hosto lehorrak, txirlora, zerrautsa eta belar lehorra.



ZER EGIN BEHAR DA KALITATE ONEKO KONPOSTA LORTZEKO?

Material hezea eta material lehorra nahastu beti

Material hezeak eta material lehorrak PROPORTZIO BERDINETAN nahastu behar dira karbono –nitrogeno erlazio egokia bermatzeko, usain txarrak ekidin eta intsektuak agertzea saihesteko.

Maiz nahastu

Nahasteak mikroorganismoek ekintzarako behar duten oxigenoa, materialaren homogeneizazioa eta hezetasuna banatzea eragiten du. Astean behin nahastu, homogeneizatzeko, aireztatzeko eta temperatura berdintzeko. Hondakin organiko asko samar botatzean ere komeni da nahastea, geruzen sorrera, usain txarrak eta intsektuak ekiditeko.

Hezetasuna kontrolatu

Hezetasuna zaindu. Oso lehorra badago, materialak ureztatu. Gehiegizko ura erregulatzeko, material egituratzailea gehitu.



MATERIAL EZBERDINAK

● **Barazki-hondarrak:** Hondakin hauek oso ekarpen ona dira.

● **Janari eta ogi-hondarrak:** Edozein janari-hondar bota daiteke. Ondo nahastu beharko da eta konpostagailuan nahikoa materia egon beharko da, karraskariak ez erakartzeko, lurretik gertuegi egon ez daitezten. Hondakin horiekin meta berotu egiten da. zizareak erakartzen dira eta ez da usainik sortzen.

● **Haragi eta arrain hondarrak:** Hezurrek denbora gehixeago behar dute desegiteko, baina ekarpen ona dira. Txikitzea komeni da.

● **Arrautz-oskolak, mariskoa eta fruitu lehorrak:** Txikitzea komeni da desegiteko denbora behar baitute. Azidotasuna gutxitzen dute.

● **Sukaldeko paper zikina:** Sukaldeko papera janari-hondarrekin zikinduta egon behar da, baina ez detergenteekin eta sukaldean erabili ohi diren beste substantzia kimikoekin.



● **Kafe eta infusio hondarrak:** Oso ekarpen ona dira.

● **Lontegiko landare hondakinak:** Luzeegiak badira komeni da moztea, batez ere, adar lodiak izanez gero. Zenbat eta txikiago moztu, errazago desegiten dira eta konpostatzea errazten dute. Oso ekarpen ona dira.

● **Fruitu hondarrak:** Oso ekarpen ona dira laster desegiten baitira konpostagailuan. Udan, zuku gehiago izan ohi dute eta ekartzen duten gehiegizko hezetasuna materia lehorrarekin orekatu beharko dugu.

● **Inausitako adaxkak:** Adaxkak birrindu egin behar dira konpostagailutik errazago ateta ahal izateko. Adarrak konpostagailura oso-osorik botaz gero, oso zaila izango da nahastea eta konposta ondo egitea. Hau da irizpide nagusia: konpostagailura botatzen dugun inausitako adaxka ez da behatza baino askoz luzeagoa eta lodiagoa izango.

● **Hosto lehorrak:** Edozein hosto lehorrek balio dezake. Batzuek hostoa zuzenean botatzen dute konpostagailura, baina komeni da behar izango ditugunerako poltsetan gordetzea. Olibondo, ereinotz, altzifre edo pinu hostoak deskonpostatzea zailagoa da osorik botatzen badira. Hala ere, denborarekin, konpost bihurtzen dira.

● **Zerrautsa eta txirlora:** Aroztegiko hondakinak oso onak dira konposta egiteko, betiere tratatu gabeko egurretik eratorriak badira. Kimikoki, zerrautsa era txirlora oso antzekoak dira, baina txirlora egokiagoa da egituratzaile gisa erabiltzeko. Zerrautsa oso egokia da zurezko beste material batzuekin edo belar lehorrarekin nahasteko.

● **Lastoa:** Konposta egiteko landare-material onenetakoa da. Dentsitate baxua du eta, horri esker, metatutako nahasketak tenperatura oso altuak hartzen ditu. Lastorik onena euritik babestu gabekoa da eta, hain zuzen ere, konposta-egile askok erabili baino aste batzuk lehenago ureztatu egiten dute deskonpostatzen has dadin.

»intsekturik gabe ez dugu ongarririk edukiko, horiek baitira ongarrria lortzeko gure laguntzaileak



● **Lortegiko belarra:** Moztu eta zuzenean bota ordez, hobe da lehortzen uztea. Horretarako, nahikoa da konpostagailuaren ondoan pilatuta uztea eta oso denbora gutxian kolore marroia izango du, lehortu denaren seinale.



10

GERTAKARI ETA ANOMALIAK

Konpostatzeko Oinarrizko Lau Arauak jarraituz gero, konpostagailuak beti funtzionatuko du ongi, ezohiko gertakaririk gabe. Materia hezea eta materia lehorra neurri berdinean botata eta nahasita, (konpostatzeko oinarrizko 2. eta 3. arauak) konpostmetaren tenperatura asko igotzen da, kasu batzuetan, lurruna dariola jarri arte. Horregatik, konpostagailuak ez du inoiz usain txarririk botatzen eta ez du eulirik erakartzen. Gainera, tenperatura horiek asteetan zehar mantentzen direnez, egon litezkeen organismo patogenoak desagertu egiten dira.

GERTAKARIA

ESANAHIA

IRTENBIDEA

Amoniako-usaina

Belar berde gehiegi eta hosto gutxi. Oxigeno falta.

Materia lehorra gehitu eta ondo nahastu.

Ustel-usaina

Hezeegia. Materia berde gehiegi. Aireztatze dusegokia.

Materia hezea eta lehorra gehitu eta ondo nahastu.

Katuak, txakurrak eta arratoiak

Nahasketa desorekatu baten aurrean gertatzen da. Tenperaturarik hartzen ez duenean.

Materia hezea eta lehorra gehitu eta ondo nahastu. Ordu gutxitan tenperatura igo egiten da eta animaliak ez dira usainarekin erakarrira sentitzen.

Konpost hotza

Nahasketa ez da egokia edo hondakin gutxiegi. Giro-tenperatura jaitsi egiten da.

Sukaldeko hondakinak bota eta nahastu.

Konpost lehorra

Hezetasuna falta da. Belar moztu berri asko bota bada, denbora gutxian tenperatura asko igotzen da eta meta lehortu daiteke.

Ondo ureztatu, ur zabaltzailea erabilita. Beheko partea oso lehorra badago, atera, materia lehor gisa erabiltzeko.

Eltxoak eta eulitxoak

Sukaldeko hondakinak konpostaren gainaldean geratzen dira, agerian.

Konpostagailuaren tapa itxi aurretik, botatzen dugun materia hezea materia lehorrekin estali (hosto lehorrak, lastoa, zerrautsa...).

Euli-larbak

Nagusiki sandia- eta meloi-hondarrek erakartzen dituzte, batez ere, begibistan gelditzen badira.

Konpostagailuaren tapa itxi aurretik, botatzen dugun materia hezea materia lehorrekin estali (hosto lehorrak, lastoa, zerrautsa...).

Hauts itxurako konposta

Belar moztu berri asko botatakoan gertatzen da. Oso azkar fermentatzen da eta tenperatura handia hartzen du.

Minutu batzuek ureztatu, ur zabaltzailea erabilita. Lehorregi dagoen materia gehiegi badago, atera, materia lehor gisa erabiltzeko.

Konposta jasotzera goazenean, ez dago oraindik egina

Konposta beti lehortzen da konpostagailuaren gainaldean.

Metaren kanpoko aldea harraskatu era, barruan, eginda dagoen konposta aurkituko dugu.



NON ETA NOLA ERABILI

11

Konpostagailutik kalitatezko konposta ateratzea bezain garrantzitsua da egoki erabiltzea. Konposta urteko zein sasoi tan erabili, zertarako erabili eta nola erabili jakitea funtsezkoa da emaitza onak lortzeko eta konpostagailuan egindako lana ez alferrik galtzeko.

ZERTARAKO

NOIZ

KANTITATEA

Baratzea

Bilketaren ostean.

1 Kg/m². Ximaurra balitz bezala. Erabili baino aste bete lehenago ureztatzea komeni da, belar-txarren haziak ernamuindu daitezen.

Fruitu-zuhaitzak

Udaberri hasieran edo udazkenean.

1,25 Kg/m² (2 zm-ko geruzan)

Belardia

Udaberrian, belarra moztu ostean. Ur-zurrustarekin ureztatu beharko dugu, ondo sar dadin.

0,5-1 Kg/m² Aldez aurretik, galbahe fin batekin bahetu behar da.

Zuhaitz apaingarriak

Udazkenean.

Adakeraren itzalaren azalera, 2 zm-k.o geruza.

Landareak eta loreak

Udaberrian.

Enborrharen inguruan, 2 zm-ko geruza.

Lekuz aldatzea

Landarea lekuz aldatzeko unean.

Konposta lurrarekin nahastu behar da, bolumen berdinean.

Parterreak

Eraikitzean.

Konposta zuzenean erabil dezakegu kontuan izanda, aste gutxi barru bolumena galduko duela, edo, lekuz aldatzeen kasuan bezala, nahastu genezake.

Zapaldak

Egitean.

Erabili baino aste bete lehenago, landatuta balego bezala ureztatu behar da bertan egon daitezkeen belar txarren haziak ernamuindu daitezen. Ondoren, nahastu eta ohi bezala erabiliko dugu.

Bonsaiak

Lur-masa berreraikitzean edo landarea lekuz aldatzean.

Konposta hareazko lurrarekin eta buztin gris edo gorriarekin nahastu behar da, bolumen berdinean.



LEA-IBARREKO
MANKOMUNAZGOA



MUNITIBARKO
UDALA



AULESTIKO
UDALA



GIZABURUAGAKO
UDALA



AMOROTOKO
UDALA



MENDEXAKO
UDALA



Bizkaiko Foru Aklundia
Euzko Foru Aklundia